g) Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (ITV-IAT) behar den epean ez egina Zirkulazioko Segurtasuneko Legeak agindu bezala, ez udaltzain diharduenaren bistan ez erakutsia zurigarririk egunen bat itundu duela ofizialki baimendutako lantegian egiteko.

en los siguientes casos:

a) Cuando el conductor carezca del preceptivo Permiso de Conducir que le autoriza administrativamente para manejar ese vehículo.

b) Cuando el conductor no presente el Permiso de Circulación del vehículo habiendo sido requerido para ello por los Agentes encargados de la vigilancia del Tráfico.

c) Cuando por deficiencias técnicas se produzcan daños en la calzada por carecer de elementos imprescindibles o ser excesiva o inadecuada su altura, anchura, peso, longitud colocación o sujeción de la carga.

d) Cuando el conductor arroje una tasa de alcohol en aire expirado superior a la legalmente establecida para el tipo de vehículo conducido, y además no sea posible ser sustituido en su puesto por conductor alguno.

e) Cuando el conductor o sus acompañantes habilitados para conducir se nieguen a realizar las pruebas de detección de los niveles de alcohol en aire expirado y se aprecien síntomas de la ingestión de bebidas alcohólicas.

f) Cuando las posibilidades de movimiento o el campo de visión del conductor resulten disminuidas de manera importante debido al número o posición de los pasajeros o a la colocación de los objetos transportados.

g) Por no llevar a cabo la Inspección Técnica de vehículos (ITV) en el plazo estipulado en la Ley de Seguridad Vial ni presentar ante el Agente interviniente justificante de tener concertada fecha para hacerlo en taller oficialmente autorizado para ello.

h) Baldin trafikoaren arau-hausteren bat salatuta, salatutakoak frogatzen ez badu ohiko bizilekua espainiar estatuko lurraldean daukala, ez ezartzen isunaren behinbehingo kontua, ezta bermatzen ere ordainduko duela.

h) Si denunciada una infracción de tráfico, el denunciado no acredita su residencia habitual en territorio español y no deposita o garantiza el pago del importe provisional de la multa.

i) Baldin ibilgailua Ibilgailuen Obligaziozko Asegurua ez daukala zirkulatzen ari bada, edo eskatuta udaltzainaren bistan erakutsi ezinda.

i) Si el vehículo circula careciendo del Seguro Obligatorio de Vehículos, o no puede exhibirlo ante el requerimiento del Agente.

j) Baldin ibilgailuak arautegiko manuren bat hautsi badu, hala non garabia enplegatuta hura bide publikotik kentzea justifikatua dagoen, eta beraren arduradunak edo gidariak ukatu badu dirutan ordaintzera ibilgailuaren krokatzeko tasa, Udal honek indarrean daukan tarifaren arabera. Ibilgetzea ahal den lekurik hurrenenean zertuko da zirkulazioari enbarazu eragin ez inongo seinaleren agindurik hautsi gabe.

j) Cuando el vehículo infrinja alguno de los preceptos reglamentarios que justifican su retirada de la vía pública mediante el empleo de grúa y su responsable o conductor se negare a hacer efectivo el importe en metálico de la tasa de enganche del vehículo, según tarifa vigente en este Ayuntamiento. La inmovilización se hará en el lugar más próximo en que no se perturbe la circulación ni infrinja señalización alguna.

**111. art.:** Udaltzaintzak ibilgetu ere egin ahal du traba edo zepoa usatuta, behar bezala aparkatua ez dagoen ibilgailua, zirkulazio-arautegiko 292. artikuluaren esanera. Gidariak berriz zirkulatzea nahi badu, agintaritza eskudunari galdegin behar dio aurretik ordaintzen duela ibilgetzeagatik ahal liratekeen gastuen zenbatekoa, udal ordenantza fiskalarekin bat etorrita.

**Art. 111 :** La Policía Local podrá también inmovilizar, mediante el empleo de "cepo", los vehículos que estén indebidamente estacionados según los supuestos contemplados en el art. 292 del C.C. Su conductor recabará de la Autoridad competente su puesta en circulación, para lo cual habrá de satisfacer previamente el importe de los gastos ocasionados con motivo de la inmovilización, si los hubiera, conforme Ordenanza Fiscal municipal.

**112. art.:** Ibilgetzeari bide emandako kausak deseginik eseki beharko da hura bera, jurisdikzioko arrazoirik ez bada neurri hori bere hartan egonaraztea artamendatzen duenik.

**Art. 112 :** La inmovilización deberá ser levantada tan pronto desaparezcan las causas que la motivaron, salvo que existan motivaciones jurisdiccionales que recomienden la permanencia de tal medida.

## II KAPITULUA

## IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK IDOKITZEA

## CAPITULO II

## RETIRADA DE VEHÍCULOS DE LA VÍA PUBLICA

**113. art.:** Udal agintaritzak edo udaltzainek agindu ahal izango dute ibilgailuren bat bide publikotik idokitzea eta udal gordelekura aldatzea, baldin hark zirkulazioari enbarazu handia egiten badio edo oinezkoen eta ondasunen segurtasuna arriskutan jartzen badu edo zerbitzu publikoren baten funtzionamendua destorbatzen.

**Art. 113 :** La Autoridad Municipal o sus Agentes podrán ordenar la retirada del vehículo de la vía pública y su traslado al Depósito establecido al efecto cuando perturbe gravemente la circulación o constituya un peligro o riesgo para las personas, los bienes, el funcionamiento de algún servicio público.

**114. art.:** Ibilgailua bide publikotik udal gordelekura idokitzea ez da bidezko izango, baldin gidariak presente dagoela behar diren neurriak hartzen baditu ibilgailuaren arauzkontrako egoera aldarazteko garabiarekin krokatu baino lehen. Honetakotzat, agintaritzaren udaltzainak gidaria errekerituko du, edo jabea edo arduraduna, ibilgailuaren ondoan legokeena, beraren arauzkontrako egoera aldarazi dezan eta inor ez izatekotan edo konturik egiten ez dionik errekerimenduari, ibilgailua aldatzeari ekingo zaio. Arazo hau burutan aterako da udaltzainak gidariari egingo dion identifikazioaz eta salaketaz beste, trafikoko arauak hausteagatik.

**Art. 114 :** No procederá la retirada del vehículo al Depósito cuando, hallándose presente su conductor, adopte las medidas procedentes para cesar en su irregular situación antes del enganche del vehículo. A éste fin, el Agente de la Autoridad requerirá al conductor, propietario o persona encargada del vehículo que se encontrare junto a éste, para que cese su irregular situación y, en caso de no existir dicha persona o que no atienda a su requerimiento, se procederá al traslado del vehículo. Esta labor la llevará a cabo con independencia de la identificación y denuncia que efectúe el Agente contra el conductor por infracción a las leyes de tráfico.

**115. art.:** Kasu bietan aginduzkoa da isunaren zenbatekoa ordaindu beharra, Getxoko Udaleko ordenantza fiskalak, ibilgailuak bide publikotik idokitzeko tasa erregelatzen duenak dioen arabera.

**Art. 115 :** En ambos casos será preceptivo el abono del importe correspondiente recogido en la Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por Retirada de Vehículos del Ayuntamiento de Getxo.

**116. art.:** Ibilgailua barruan egoilerik batere daukala ezin eramango da udal gordelekura. Baldin eta ibilgailu hori idokitzea beregain daukan udaltzainak gidariari edo egoileei aginduko balie barrutik bertatik ateratzea eta bere esanari jaramon egingo ez baliote harako haiek, ordena publikoari kalte handiagorik ez eragitearren, ibilgailua lekuz aldatzea beharreko segurtasuneko neurriak hartuta egingo litzateke, hura garraiatzean guztiz ibilgetzea aseguratzeko modukoak.

**Art. 116 :** No podrá realizarse el traslado del vehículo al Depósito con ocupante alguno en su interior. Si el Agente encargado de la retirada ordenara al conductor u ocupantes que salieran del vehículo y fuera desobedecido, y en evitación de mayores perjuicios al orden público, el traslado se hará con la adopción de medidas de seguridad que garanticen la inmovilización absoluta del vehículo durante el transporte.

**117. art.:** Trafikoaren enbarazuen kausa larriak, ibilgailua garabiaz bide publikotik arrazoi den bezala idokitzeko bestekoak, hurrenengoak dira:

**Art 117 :** Se consideran causas graves de perturbación del tráfico, y por ello resulta justificada su retirada con grúa de la vía pública las siguientes:

a) Ohartzea leku batean hilabete gutxienez segituan aparkatua egona dela eta egiaztatzea denbora hori lehenengo salaketa egin ondotik irauna.

a) Cuando se constate su estacionamiento continuado en un mismo lugar durante, al menos, 1 mes y pueda constatarse este tiempo desde la primera denuncia interpuesta.

b) Ibilgailua erreskada bitan aparkatua egona gidaririk gabe.

b) Cuando el vehículo se halle estacionado en doble fila sin conductor.

c) Sarrera-irteerak oztopatua, Getxoko Udalak baimendutako ibiaren seinale-plaka zenbakiduna daukaten eraikinetan.

c) Cuando obstaculice la salida o entrada de inmueble señalizado con placa numerada de vado autorizado por el Ayuntamiento de Getxo.

d) Debekatutako lekuan aparkatua egona, zirkulazio-dentsitate handiko bidean, udal ordenantzatan hola ezagutarazi beharrean.

d) Cuando el vehículo esté estacionado en lugar prohibido en vía de circulación muy densa, definida como tal en Ordenanza Municipal.

e) Karga-deskargetarako berariaz erreserbatutako lekuan aparkatua egona, mugapeneko seinalean hartarako esleitutako orduen barruan.

e) Cuando se encuentre estacionado en lugares expresamente señalados con reserva de carga y descarga durante las horas a ello destinadas y consignado en la señal limitadora.

f) Ibilgailua garraio publikoetako erreserbuko eremuetan aparkatua egona, behar den moduan seinalatu eta mugatuta aurkitu beharrean.

f) Cuando el vehículo se encuentre estacionado en los espacios reservados para los transportes públicos, siempre que se encuentren debidamente señalizados y delimitados.

g) Estualdiko eta segurtasuneko zerbitzuetako berariazko erreserbuko lekuetan aparkatua egona, esateko moduan, anbulantziak, ponpariak eta polizia.

g) Cuando lo esté en lugares expresamente reservados para servicios de urgencia y seguridad tales como ambulancias, bomberos y Policía.

h) Halabeharreko irtenbide aurrean aparkatua egona, ikuskizun publikoetako lekuetan eta hoiek egiten diren orduetan.

h) Cuando estacione delante de las salidas de emergencia de lugares destinados a espectáculos públicos y durante las horas de celebración de los mismos.

i) Aparkatutako ibilgailuak seinaleaz baimendutako bira eragotzia.

i) Cuando el vehículo estacionado impida el giro autorizado por señal correspondiente.

j) Ibilgailua espaloi edo ibiltoki gainean aparkatua egona, osoa edo parte, aparkatzea bertan debekatuta.

j) Cuando el vehículo se halle estacionado total o parcialmente sobre una acera o paseo en la que no esté autorizado el estacionamiento.

k) Seinalatutako oinezkoen pasagunean aparkatua egona.

k) Cuando estacione sobre paso de peatones señalizado.

l) Erreskan edo alaka eran aparkatua egona, aldameneko kaleko zintarriaren lerrotik hara aterata, ibilgailuen ilara bati pasatzen uzten ez diola edo oinezkoei libre zirkulatzen.

l) Cuando lo esté en línea o chaflán de modo que sobresalga de la línea del bordillo de la calle adyacente, interrumpiendo el paso a una fila de vehículos o la libre circulación de peatones.

m) Halako moduan leku batean aparkatua egona, non trafikoko seinaleak estaltzen dituen eta bidearen erabiltzaile enparauei arrisku handia eragin ahal dien seinaleok ikusi ezinda bete gabez.

m) Cuando se encuentre en un emplazamiento tal que impida la visión de señales de tráfico cuya inobservancia devengue grave riesgo para los demás usuarios.

n) Eraikin ofizialen inguruan behar bezala seinalatutako segurtasuneko eremuetan aparkatua egona.

n) Cuando estacione en perímetros de seguridad de edificios oficiales debidamente señalizados.

o) Berariazko erreserbuko lekuetan aparkatua egona, konparazio batera, obra, elbarri, udal zerbitzu, kontsulatu edo beste Udalak baimendutako edozertakoetan.

o) Cuando esté estacionado en lugares reservados expresamente, tales como de obras, minusválidos, servicios municipales, Consulados, o cualquier otro autorizado por este Ayuntamiento.

p) Haren kontserbazioko estatua hainbateko arriskutsua izana, arrazoi den bezala, beraren ondotik dabiltzan bideazkoentzat.

p) Cuando por su estado de conservación constituya un riesgo fundamentable para los transeúntes que pasen junto a él.

q) Ibilgailua aparkatuta, arrazoizko ziorik gabe, matxurarenik ez bada, soinu-alarmari jo eragina egona, haren erantzulea idoro ezinda.

q) Que constituya una molestia grave para el vecindario cuando, estacionado y, sin causa justificada sino la de avería, esté accionada la alarma acústica del vehículo y no sea posible la localización de su responsable.

**118. art.:** Ibilgailua bide publikotik idokitzeko edo lekuz aldatzeko zio izango dira, haren jabeari dirurik batere kostatu gabe, hurrenak:

**Art. 118 :** Podrá procederse a la retirada o traslado del vehículo, pero sin que suponga coste económico alguno para su propietario:

a) Ibilbide batean edo eremu batean zuzen den bezala aparkatua egona, nondik pasa behar den jendea, dela segizioa edo martxa, dela prozesioa edo kabalkada, edo non egin behar den kirol saioren bat edo munta handiko jardueraren bat, agintaritzak baimendutakoa, ibilgailua bertatik kendu beharraren berri jabeari jakinarazi ezinda.

a) Cuando estacione correctamente en itinerario o espacio que haya de ser ocupado por una comitiva, desfile, procesión, cabalgata, prueba deportiva u otra actividad de relieve debidamente autorizada, y en los casos de imposibilidad de poner en conocimiento del titular la necesidad de la retirada del lugar.

b) Bide publikoa konpondu edo garbitu beharra egona, lekuan aparkatua dirauela nabarmen erasaten badio bertako segurtasunari edo osasungarritasunari.

b) Cuando resulte necesario para la reparación o limpieza de la vía pública y su permanencia en el lugar repercuta de manera importante en la seguridad o salubridad del lugar.

c) Bide bezala justifikatutako estualdiak behartua.

c) Cuando resulte necesario por urgencia debidamente justificada.

**119. art.:** Jabeak udal gordelekura garabiaz idokitako ibilgailua errekubratu nahi badu, aurretik prezio publikoaren kontua ordaindu beharko du lekuz aldatzeagatik eta egonaldiagatik, udal ordenantza fiskalak ezarritakoa.

**Art. 119 :** Para la recuperación del vehículo retirado por la grúa al Depósito municipal, su propietario vendrá obligado a satisfacer el importe del precio público establecido en la Ordenanza Fiscal correspondiente por traslado y estancia del mismo, como requisito previo.

Arrazoizko segurtasuneko kausengatik lekuz aldatuak apart daude, esate baterako, ohostutako autoa errekubratua, jabea behingo batean ezin aurkitua, edo agintaritza judizialak berariaz hala erabakita.

Se exceptúan los casos de traslado por razones de seguridad justificadas, tales como tratarse de vehículo robado que se recupera, imposibilidad momentánea de localización de propietario, o cuando expresamente lo determinare la Autoridad Judicial.

**120. art.:** Baldin eta ibilgailua garabiaz lekuz aldatu izan ez balitz, haren tresna mekanikoekin "krokatua" izan balitz ere, krokatzearen tasa bakarrik pagatu behar luke udal ordenantza fiskalaren esanera. Ibilgailua krokatua izan dela esanda, aditu behar da eutsia, lotua, irozoa eta gora jasoa, lekuz aldatzeko dauzkan krokak edo kakoak, txirrikak edo indar egiteko tramankuluak erabilita.

**Art. 120 :** Si el vehículo no llegó a ser trasladado con grúa pero se le efectuó "enganche" con medios mecánicos por ésta, deberá su conductor abonar la Tasa de Enganche recogida en la Ordenanza Fiscal al respecto. Por " enganche " del vehículo se entiende haber sido apoyado o sujeto inicialmente con los ganchos, poleas u otro dispositivo de fuerza utilizados para su traslado, y estar elevado del suelo.

## V TITULUA

## TITULO V

## ZEHAPENEKO PROZEDURA

**121. art.:** Udalbatzako Alkate-Lehendakaria da organo eskuduna zehapenak ezar ditzan ordenantza honetako manuen hausteen gainean, hala nola harako indarrean dauden legeek xedatutakoak.

**122. art.: 1.** Hausteen egileak baizik ez du beregain hartuko holako egintzen erantzunbeharra eta ezezaguna izatekotan, ibilgailuaren jabea errekerituko da hamabost eguneko epean jakinarazpena jaso ondotik ekar dezan gidari erantzulea ezagutarazteko behar beste datu, ohartarazten zaiola eginbide hau konplitu gabez arrazoizko ziorik ez duela, falta larritan eukita halakoari doakion zehapena ezarriko dela prozedurako izapideetan.

**2.** Inork bere eginengatik erantzukizun penala edo zibila izan ahal ote duen jurisdikzio eskudunak badio edo ez badio, adinez txikikoei ordenantza honen arauen bat hausteagatik zehapena ezartzen bazaie, haien gurasoek edo kuradoreek beren ondareaz beren begiran dituztenen isunei erantzun baharra daukate.

**123. art.:** Agintaritza eskudunaren aldetik ofizioz emango zaio hasiera zehapeneko prozedurari, jakin baleki trafikoko arau-hauste ahal liratekeen egintzen berri edo salaketa eginda.

Trafikoaren begirantza beren kontu daukaten agintaritzaren agenteek beren egitekoetan dihardutela erreparatuta, salatu beharra daukate Trafikoko, Motorezko Ibilgailuen Zirkulazioko eta Bide-Segurtasuneko Legearen, eta Zirkulazioko Arautegi Orokorraren, eta udal ordenantza honen aurka jaukitako hausteak.

Edonork ere salatu ahal izango ditu halaber,

## PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

**Art. 121:** El Alcalde-Presidente de la Corporación es el órgano competente para la imposición de sanciones por las infracciones a los preceptos recogidos en esta Ordenanza, así como aquellas otras que vengan establecidas por las disposiciones legales vigentes.

**Art. 122: 1.** La responsabilidad por las infracciones recaerá directamente en el autor de los hechos en que consistan y, si éste no fuese conocido, se requerirá al titular del vehículo para que, en el plazo de quince días desde la recepción de la notificación, aporte los datos necesarios para la identificación del conductor-responsable, con la advertencia de que el incumplimiento de esta obligación, sin causa justificada, en el trámite procedimental oportuno, será sancionada como falta grave.

**2.** Con independencia de que la jurisdicción competente determine la posible responsabilidad penal o civil del autor de los hechos, los padres o tutores de los menores de edad que sean sancionados por las infracciones previstas en la presente Ordenanza, responderán con su patrimonio de las posibles sanciones que se impongan a los sometidos a su tutela.

**Art. 123:** El procedimiento sancionador se incoará de oficio por la autoridad competente que tenga noticia de los hechos que puedan constituir infracciones de tráfico o mediante denuncia.

Los Agentes de la Autoridad encargados de la vigilancia del tráfico deberán denunciar las infracciones a la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, Reglamento General de Circulación y la presente Ordenanza, que observen en el ejercicio de sus funciones.

Cualquier persona podrá, igualmente, formular

trafikoko arauak hautsitako egintzak.

denuncias por hechos que constituyan infracción de las normas de tráfico.

**124. art.:** Trafikoko arau-hausteen egintzak salatzerakoan hurrengo datuak xehatuko dira: ibilgailuaren identifikazioa, salatutakoaren nortasuna, ezaguna balitz, egintzaren zertzeladak lekua eta eguna eta ordua azalduta, eta salatzailearen izen-deiturak eta lanbidea eta bizilekua. Azkeneko hau udaltzaina balitz, beraren datuak identifikazioko zenbakiaz alda daitezke.

**Art. 124:** En las denuncias por hechos de tráfico deberá constar: la identificación del vehículo, la identidad del denunciado, si fuese conocida, una relación circunstanciada del hecho, expresando el lugar, fecha y hora, y el nombre profesión y domicilio del denunciante. Cuando éste sea un Agente de la Autoridad podrán sustituirse estos datos por su número de identificación.

Salaketako orria salatutakoari bertan eskuratuko zaio, hala ahal bada, salaketari dagokion espedienteari hasiera emanda; salatutakoak salatzailearekin batean sinatuko paperean, bere sinaduraz aitor ematen diola berarentzat den kopia eskura jasoari, ez salaketaren egintzekin bat datorrela, ordea. Baldin eta salatutakoak uko egingo balio sinatzearei edo egiten ez baleki, hala jarrarazi egingo luke salatzaileak eta berak adierazitakoak harako bestearen sinadurak beste balioko luke. Bestelako arrazoiengatik ere, salaketako paperean behar den bezala justifikatuta agertarazita, jakinarazi ahal izango da geroago salaketaren berri; bertan eskura ez emandako salaketa-orriek ez dute baliorik batere izango, halere, ibilgailua geldiaraztea eragotzi zuten berariazko kausa zehatzak agertu ez jakinarazi gabe badaude.

El boletín de denuncia será entregado en el acto al denunciado, si fuera posible, quedando incoado el correspondiente expediente y lo firmarán el denunciante y el denunciado, sin que la firma de éste implique conformidad con los hechos que motivan la denuncia, sino únicamente con la recepción del ejemplar a él destinado. Si el denunciado se negase a firmar o no supiera hacerlo, el denunciante lo hará constar, y su manifestación producirá los mismos efectos que la firma. Por razones justificadas, que deberán hacerse constar en las propias denuncias, se podrá notificar con posterioridad, no siendo válidas las denuncias no entregadas en el acto si no se recogen y notifican las causas concretas y específicas que impidieron la detención del vehículo.

**125. art.:** Borondatezko salaketak udaltzainei esanda berbaz egin daitezke edo nahi bada, idatziz, Alkatetzara jota.

**Art. 125:** Las denuncias voluntarias podrán formularse verbalmente ante los Agentes de la Policía Local o por escrito dirigido a la Alcaldía.

Salaketa udaltzainen bati eragingo balitzaio, salaketaren orria beteko luke hark berak erregelamendua den bezala eta lehenagoko artikuluan esandako datuez bestalde, idatziz jarriko ea bere buruz egiaztatu zuenez ala ez salatutako egintza eta bai pertsona salatzailearen izen-deiturak eta helbidea ere; horrako orri hori Alkatetzara jo eragin eta gero izapidatuko litzateke hurrengo artikuluan agindua legez.

Si la denuncia se presentase ante los Agentes de la Policía Local, se formalizará por ellos el reglamentario boletín de denuncia, en el que se consignará, además de los datos recogidos en el artículo anterior, si personalmente comprobó o no la infracción denunciada, así como el nombre y domicilio del particular denunciante, remitiéndose el boletín a Alcaldía para su posterior tramitación de acuerdo con lo dispuesto en el siguiente artículo.

**126. art.:** Jarraitu behar zaion prozedura hasi eta bukatu arte izapidatzerakoan, ordenantza honen 136. artikuluak aipatzen dituen araubideen esanetara egongo da betiere.

**Art. 126:** La tramitación del procedimiento hasta su resolución final se ajustará a lo dispuesto en la normativa prevista en el artículo 136 de la presente Ordenanza.

**127. art.:** Agintaritzaren udaltzainek egindako salaketek balio izango dute salatutako egintzen frogatan, haiek berek ahal diren frogagarri guztiak agirira atera beharra badaukate ere.

**Art. 127:** Las denuncias efectuadas por los Agentes de la Autoridad tendrán valor probatorio de los hechos denunciados, sin perjuicio del deber de aportar por aquellos todos los elementos probatorios posibles.

**128. art.:** Jakinarazpenari dagokionez, ibilgailuaren jabearen eta gidariaren bizilekutzat joko dira haiek berek berariaz adierazitakoak eta halakorik agertu ezik, Gidarien eta Arau-hausleen Errejistroan eta Ibilgailuenean ageri direnak, hurrenez hurren.

Jakinarazpenen araubidea eta betebeharrak, Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko gaietako zigor-prozedurako araudia onetsi duen otsailaren 25eko 320/1994 errege dekretuak ezarritakoak izango dira; baita ere, Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legearen testu artikulatua onetsi duen martxoaren 2ko 339/1990 errege dekretu legegileak, eta azkenik, Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzko hazilaren 26ko 30/1992 legeak, eta hoiexei egin dakizkiekeen aldaketek ezarritakoak.

**Art. 128:** A efectos de notificaciones, se considerará domicilio del conductor y del titular del vehículo aquél que los interesados hayan expresamente indicado y, en su defecto, el que figure en los Registros de Conductores e Infractores y en el de Vehículos, respectivamente.

Las notificaciones se ajustarán al régimen y requisitos previstos en el Real Decreto 320/1994, de 25 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de Procedimiento Sancionador en Materia de Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, en el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial y en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y a sus correspondientes modificaciones.

**129. art.:** Administrazio-bideari azken ematen dioten ebazpenen kontra administrazioarekiko liskar-auziko errekurtsua eragin daiteke.

**Art. 129:** Contra las resoluciones que pongan fin a la vía administrativa podrá interponerse recurso contencioso-administrativo.

**130. art.:** Arau-hausteak zehatzeko ekintzak hiru hilabete dirau egitate hoiek jauki izan diren egunetik kontatzen hasita, epearen amaieran iraungitzen dela hura. Preskripzio hori

**Art. 130:** La acción para sancionar las infracciones prescribe a los tres meses, contados a partir del día en que los hechos se hubiesen cometido. La prescripción se interrumpe por cualquier actuación

administrazioak aldez edo moldez diharduela etengo da, salatutakoak jardute horren berri badaki edo beraren nortasuna edo bizilekua ezagutarazteko bada edo jakinarazpenagatik. Preskripzioko epeari berrien berriz hasiera emango zitzaion prozedura hilabete baino gehiago egonean egon izan balitz salatutakoaren gain egotz ezin zitekeen kausagatik.

de la Administración de la que tenga conocimiento el denunciado o esté encaminada a averiguar su identidad o domicilio o por la notificación. El plazo de prescripción se reanudará si el procedimiento estuviere paralizado durante más de un mes por causa no imputable al denunciado.

Zehapenaren preskripzioko epea urtebete izango da erabakia behin-betikoa izanda hurrengo egunetik hasita.

El plazo de prescripción de la sanción será de un año desde el día siguiente a la firmeza de la resolución.

**131. art.:** Arau-hauste larrien eta oso larrien zehapenak Gidarien eta Arau-hausleen Errejistroan anotatuko dira eta era ofizialean edo interesatuak eskatuta ezeztatuko, aurrekinen alderako, behin preskripzioaz edo guztiz betetzeaz gero sei hilabete pasata.

**Art. 131:** Las sanciones graves y muy graves serán anotadas en el Registro de Conductores e Infractores y serán cancelados de oficio o a petición del interesado, a efectos de antecedentes, una vez transcurridos seis meses desde su total cumplimiento o prescripción.

**132. art.:** Udal ordenantza honek aurrikusitako zehapenak administrazio-bidean indarrean jarri ez badira, artean ezin joko da etsekutatzera.

**Art. 132:** No se podrá proceder a la ejecución de las sanciones previstas en esta Ordenanza que no hayan adquirido firmeza en vía administrativa.

**133. art.:** Mundak behin-betiko diren ondotik 15 astegunen barruan ordaindu beharra dago. Epe hori igarota exakzioz ordaindu eragingo dira premiamenduko prozeduraz. Alde horretara etsekuzio-tituluaren balioa izango du udal organo agintedunetik luzatutako zorpearen ziurtagiriak.

**Art. 133:** Las multas deberán hacerse efectivas dentro de los 15 días hábiles siguientes a la fecha de su firmeza. Transcurrido dicho plazo sin haberse satisfecho su exacción se llevará a cabo por el procedimiento de apremio. A tal efecto, será título ejecutivo la certificación de descubierto expedida por el órgano competente del Ayuntamiento.

**134. art.: 1.** Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legearen testu artikulatua onetsi duen martxoaren 2ko 339/1990 errege dekretu legegileak eta lege hori garatzen duen arautegiak berariaz larritzat edo oso larritzat ez badauzka, ordenantza honi egindako arau-hausteak arinak izango dira.

**Art. 134: 1.** Tendrán la consideración de infracciones leves las cometidas contra la presente Ordenanza que no hayan sido calificadas expresamente como graves o muy graves en el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial y en la normativa que la desarrolla.

**2.** Arau-hausteak zehatutako isunak dira: arinak,

**2.** Las infracciones leves serán sancionadas con

15.000 pezetarainokoak; larriak, 50.000 pezetarainokoak, eta larri-larriak, 100.000 pezetarainokoak.

multa de hasta 15.000 pts., las graves con multa de hasta 50.000 pts. y las muy graves con multa de hasta 100.000 pts.

**135. art.:** Arau-hausteak zehatutako munden kopuruak, trafikoko eta ibilgailu motoredunen zirkulazioko eta bide-segurtasuneko lege indarrean dagoenak aurrikusita, Alkatetzak berak finkatuko ditu berea daukan eskumenaz baliaturik.

**Art. 135:** Las cuantías de las sanciones correspondientes a las infracciones contempladas en la vigente legislación sobre tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial, serán fijadas por la Alcaldía, en lo que a ella compete.

**Art. 136:** Ordenantza honek ezarritako zigor-prozedurak betiere hurrengo legeen esanak bete beharko ditu eta hoiek dira, Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Oinarrien uztailaren 25eko 18/1989 legea; Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legearen testu artikulatua onetsi duen martxoaren 2ko 339/1990 errege dekretu legegilea, martxoaren 24ko 5/1997 legeak aldarazitakoa bera; Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzko hazilaren 26ko 30/1992 legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 legeak aldarazitakoa bera; Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko gaietako zigor-prozedurako araudia onetsi duen otsailaren 25eko 320/1994 errege dekretua, eta urtarrilaren 30eko 116/1998 errege dekretuak eta otsailaren 4ko 137/2000 errege dekretuak egindako aldaketak; Zehapen-ahalgoa egikaritzeko prozedurako araudia onetsi duen agorrilaren 4ko 1398/1993 errege dekretua; eta azkenaren buruan, gerora aplikatzeko emango den arautegi guztia.

**Art. 136:** El procedimiento sancionador regulado en esta Ordenanza deberá en todo caso cumplir con lo dispuesto en la Ley 18/1989, de 25 de julio, de Bases sobre Tráfico y Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial; el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, modificado entre otras por la Ley 5/1997, de 24 de marzo; la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero; el Real Decreto 320/1994, de 25 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de Procedimiento Sancionador en Materia de Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial y las modificaciones introducidas por el Real Decreto 116/1998 de 30 de enero y por el Real Decreto 137/2000 de 4 de febrero; el Real Decreto 1398/1993, de 4 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento del Procedimiento para el ejercicio de la Potestad Sancionadora; y la normativa futura de aplicación.

## EGITURA

## ESTRUCTURA

**I TITULUA: ATARIKOAK**

**TITULO I : PRELIMINARES.**

**I KAPITULUA: XEDEA**

**CAPITULO I : OBJETO.**

**II KAPITULUA: APLIKAZIOKO EREMUA**

**CAPITULO II : ÁMBITO DE APLICACIÓN.**

| | |
|---|---|
| **II TITULUA: TRAFIKOAREN ETA ZIRKULAZIOAREN ANTOLAKETA** | **- TITULO II : ORDENACIÓN DEL TRAFICO Y CIRCULACIÓN.** |
| **I KAPITULUA: UDAL ESKUMENA** | **CAPITULO I : COMPETENCIA MUNICIPAL.** |
| **II KAPITULUA: PRINTZIPIO OROKORRAK** | **CAPITULO II : PRINCIPIOS GENERALES.** |
| **III KAPITULUA: PORTAERAKO ARAUAK ZIRKULAZIOAN** | **CAPITULO III : NORMAS DE COMPORTAMIENTO EN LA CIRCULACIÓN.** |
| **I ATALA: IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA** | **SECCIÓN I : VEHÍCULOS.** |
| **II ATALA: OINEZKOAK** | **SECCIÓN II : PEATONES.** |
| **III ATALA: ANIMALIAK** | **SECCIÓN III : ANIMALES.** |
| **IV ATALA: OINEZKOENTZAKO ESPARRUAK** | **SECCIÓN IV : AREAS PEATONALES.** |
| **V ATALA: OZTOPOAK BIDE PUBLIKOAN** | **SECCIÓN V : OBSTÁCULOS EN LA VÍA PUBLICA.** |
| **VI ATALA: SEINALEAK** | **SECCIÓN VI : SEÑALIZACIÓN.** |
| **IV KAPITULUA: LANAK BIDE PUBLIKOAN** | **CAPITULO IV : OBRAS.** |
| **I ATALA: ARAU OROKORRAK** | **SECCIÓN I : NORMAS GENERALES.** |
| **II ATALA: SEINALEZTAPENEKO ELEMENTUAK** | **SECCIÓN II : ELEMENTOS DE SEÑALIZACIÓN.** |
| **V KAPITULUA: GELDIALDIA ETA APARKAMENDUA** | **CAPITULO V : PARADAS Y ESTACIONAMIENTOS.** |
| **I ATALA: GELDIALDIAREN ARAUBIDEA** | **SECCIÓN I : RÉGIMEN DE PARADAS.** |

| | |
|---|---|
| **II ATALA: APARKAMENDUAREN ARAUBIDEA** | **SECCION II : REGIMEN DE ESTACIONAMIENTOS.** |
| **III TITULUA: BIDE PUBLIKOEN USARIOA** | **TITULO III : USOS DE LAS VIAS PUBLICAS.** |
| **I KAPITULUA: KARGA-DESKARGAK. KONTENEDOREAK** | **CAPITULO I : CARGA Y DESCARGA. CONTENEDORES.** |
| **II KAPITULUA: GARRAIO DISKREZIONALA** | **SECCION II : REGIMEN DE ESTACIONAMIENTOS.** |
| **III KAPITULUA: BIDE PUBLIKOAN DEBEKATUTAKO USARIOAK** | **TITULO III : USOS DE LAS VIAS PUBLICAS.** |
| **I KAPITULUA: KARGA-DESKARGAK. KONTENEDOREAK** | **CAPITULO I : CARGA Y DESCARGA. CONTENEDORES.** |
| **II KAPITULUA: GARRAIO DISKREZIONALA** | **CAPITULO II : TRANSPORTE DISCRECCIONAL.** |
| **III KAPITULUA: BIDE PUBLIKOAN DEBEKATUTAKO USARIOAK** | **CAPITULO III : USOS PROHIBIDOS DE LA VIA PUBLICA.** |
| **IV TITULUA: ZUHURTASUNEZKO NEURRIAK** | **TITULO IV : MEDIDAS CAUTELARES.** |
| **I KAPITULUA: IBILGAILUEN IBILGETZEA** | **CAPITULO I : INMOVILIZACION DE VEHICULOS.** |
| **II KAPITULUA: IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK IDOKITZEA** | **CAPITULO II: RETIRADA DE VEHICULOS DE LA VIA PUBLICA.** |
| **V TITULUA: ZEHAPENEKO PROZEDURA** | **TITULO V : PROCEDIMIENTO SANCIONADOR.** |

Aprobada inicialmente 30-04-01
Aprobada definitivamente 29-06-01
Públicada BOB n° 144 27-07-01